


noaua



**Usurbilgo Sagardo Egunaren
Lagunak: “Guk ere behar dugu
erreleborako jendea”**

**Usurbilgo II. Txalaparta
Festa ospatzeko garaia da**

**Peru Galbetek Joxan Artzeri
buruz egin duen film laburra
ikus ahal izango dugu
igande honetan Sutegin**



**Arkaitz Portularrume, nekazaria:
“Ogibide honek dedikazio handia eskatzen
du. Inbertsio asko, lan ordu asko,
opor gutxi... Eta ordainsaria eskasa da”**

G15 GIPUZKOA
HIGIEZINA
ELKARTEA



HIGIEZINA | INMOBILIARIA

SALEROSKETA & ALOKAIKURAK

Zugandik GERTU behar duzun GUZTIRAKO

688 739 733 info@g15usurbil.eus
Etxebeste Kalea 15 - USURBIL

NOAOA
BIDAIAK



IRTEERA 2023ko iraila

Noaoak gidatutako talde bidaiak.
Lasarte-Oriatik irtenda.

943 37 36 13 • info@noaoa.eus • Hipodromo Etorbidea, 10 • Lasarte-Oria



USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA

www.lhusurbil.eus
EZAGUTU GURE IKASTETXEA

LANBIDE HEZIKETAKO
AURREMATRIKULAK
23/24

MAIATZAREN
8tik 26ra



CIFP USURBIL LHII
ETARTE BIDEA 9, ZUBIETA, USURBIL
943 364 600
eskola@lhusurbil.eus

Albisteak iruditan

Herriko kultur altxorrak ezagutzeko aukera paregabea

650 Usurbil Bizi egitasmoaren baitan, 'Usurbil Museo Irekia' izeneko bisita gidatuak jarri dira martxan. Dagoeneko hainbat lagunek osatu dute ibilbidea. Iragan astean adibidez, Lasarte-Oriako HHI-EPA eskolakoak hurbildu ziren. Argazkia da bisita horren lekuko. Herriko kaleetako kultur altxorrak ezagutzea xede duten hitzordu gehiago iragarri dira datozen egunetarako.

'Usurbil museo irekia' bisita gidatua

- Maiatzak 13, 14, 27 eta 28.
- 12:00etan abiatuko dira Sutegitik.
- Iraupena: Ordubete.
- Prezioa: 3 euro, 18 urtetik beherakoek doan.
- 14 laguntzako lekua.
- Izen-ematea: 650usurbilbizi.eus

Zumetaren muralari buruzko erakusketa
Gogoan izan, bestalde; mende erdia bete duen Jose Luis Zumetaren frontoi atzeal-



Dagoeneko hainbat lagunek osatu dute 'Usurbil museo irekia' izeneko bisita gidatua.

deko muralari lotutako erakusketa bisita dezakezue maiatzaren 15era arte, ordu-tegi honetan:

- Astelehenetan: 17:00-20:00.

- Asteartetik ostiralera: 11:00-13:00 / 17:00-20:00.

- Larunbat eta igandeak: 11:30-14:00 / 17:00-20:00.

Laburrean

Jai Batzordea

Usurbilgo festei begira, gogoan izan Jai Batzordetik martxan jarritako deialdiei. Maiatzaren 23ra arte aurkeztu daitezke egitarau diseinu lehiaketarako lanak eta txupinazorako ere hautagaiak proposa daitezke udal eraikinetako kaxetan.

Odol emaileen oharra

Maiatzaren lehena jai denez, hilaren 15era atzeratu dute hitzordua; ohi bezala, 16:30-20:30 artean Udarregin. Aurrez odola eman dutenei hitzordua finkatuko zaie. Lehen aldiz odola eman asmo duenak hona deitu dezala hona: 943 007 884.

III. Uxue Trail proba

Ekainaren 18an egingo da, goizeko 9:00etan hasita. Hiru lasterketa izango dira aukeran: luzea (20 km), motza (11,5 km) edo Uxue paseoa (5,5 km). Izen-ematea zabalik da kronoak.com atarian. Dortsal solidarioa ere eskura daiteke bertan.

noaia

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkarte@noaia.eus /// www.noaia.eus
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Alaitz Aizpurua.

Diseinua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaia.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta,

Iban Maritxalar.

Tirada: 2.930 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Harremanetarako:

erredakzioa@noaia.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak
Usurbilgo Udala
Euskal Herrira!



Ugaitz Agirre

Errepiderik abandonatuenak, pitzatuenak, basenak jarraitu zenituen. Orein batek gure aurrean gurutzatu zuen asfaltoa. So geratu zitzaigun zerbaiten beha balitzan. Motorra itzali zenuen eta adi-adi segitu animalia mugimenduak. Baita keinurik ñimiñoenak ere. Aztoramenduaren zaratarik gabe ginen, eta badakit, orduan nekien bezala, kanpora atera nahi zenuela, eta kotxearen kapot gainetik zelatatu bidaia oztopatzen zigun biziduna.

Ondotxo genekien, baina, mugimendurik txikiena mehatxutzat hartuko zuela, eta jauzika, brinkoka, ihesi joango zela zuhaitz artean ezkutatuzera. Horregatik, bigunaren gainean mantendu zinen begiak adi buruz ikasi nahiko bazenitu bere ezaugarri eta ñabardura guztiak, hurrengo batean berriro topo eginez gero, *Ei! Gogoratzen nitaz? Nire bidaia oztopatu zenuen, baina nik ez nizun inoiz horrelakorik leporatuko, seguruenik ni izan bainintzen zure jolasa moztu zuena, e-sateko.*

Alde egin zuenean ere, motorra itzalita eta isilik mantendu ginen errepidearen erdian. Tiro hots bat entzun zen oso urruti. Ehiza garaia izango ote zen?

Mendialdera gindoazen, Jakara agian? Ez zen axola



“Orein batek gure aurrean gurutzatu zuen asfaltoa. So geratu zitzaigun zerbaiten beha balitzan”.

UGAITZ AGIRRE

“Zure atsedenekuan irudikatu nuen nire burua. Ihesari azken puntua ipini eta beste kapitulu bati ekiteko unea”

zuen zerbait. Herri txiki bate-tik igaro ginen, harrizkoa. Al-daketa eskatu zenidan kafea hartu genuenean. Kafetegi txiki batean zen, horman zintzilik zeuden sarde, zintzel, aitzur, ingude eta saskiak. Beheko sua piztuta eta oraindik temati eusten zion negu gorriari aurre egiteko egur pila ondoan. Mostradorearen atzean txokolatea, gailetak, ogia, arrautzak eta abar. Balantza zahar bat eta bakailao gatzatua buztanetik zintzilik mantentzen zituen denda-kafetegi horietakoa zen, aire bukolikoa zerion.

Nola imajinatzen duzu etor-

kizuna?

Derrepentean harrapatu ninduen zure galderak, Lau. Erantzunik eman aurretik bota zenuen zeurea:

Nirea ez dut oso garbi. Haurrik ez dut nahi, garbi dudak bakarra hori da. Baina imajinatzen dut nire burua horrelako toki batean, ogia lehen egiten zen bezala egiten, eta herritarrei eta bidaiariei salduko nien. Baratza bat banu, barazkiak eta fruta arbolak jarriko nituzke, eta haiekin marmeladak eta gauza goxoak eta orain imajinatzeko gai ez naizen beste mila gauza egingo nituzke. Eta zuri probatzeko emango nizkizuke.

Zure etorkizunean nago, beraz?

Hasierako harridura laster bilakatu zen ondorio zentzuzkoa: konpromisoari beldurra niola. Begietara adi begira jarri zintzaizkidan. Orein hura

nintzen. Ihes eta ihes jada zertaz ihesean ari den ez dakiena nintzen. Eta bat-batean auto batekin topo errepidean. Pausa. Obserbazioa. Pentsatu: zeri ari nintzaion ihesi? Galdegin gabe ere galdegiten zenidan, galdera batzuk ez baitute hitzik behar eta keinu batzuk galdera logikoenak baitira.

Beti baldin badago ere ihes-erako motibo bat, azkenean, beti, geratzeko toki aproposa aurkitzen denean, batek ez du handik alde egin nahi izaten. Bere ihesaren akabera, atsedeneku behinena.

Zure atsedenekuan irudikatu nuen nire burua orduantxe. Ihesari azken puntua ipini eta beste kapitulu bati ekiteko unea. Atsegina zen, goxoa, usain erakargarrikoa zen, ogi egin berriarena zegoen. Bazkaltzen ari ginen.

Memoria jakuzi egin zidan elkartu ginen gauean pizta jan genuenekora. Ahaztu ezin gazta urtua zeinen malgu irristatzen zen airean eta zure hortzekin kokx ez zedin mahaira eror. Zeinen irri kutsakorra bezain eterno zurea! Gure atzeko autoek zarata jasangaitza egiten zuten; halere, zure baitan harrapatuta nengoan. Aurrez aurre baino, orpoz orpo hobe, besoak elkar itsatsita eta zure eskuak nire izter gainean.

Nik ipini nizun eskua izterrean mendialdeko herri hartan.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Luis Aranalde

Ugaitz Agirre Zapirain

Komikia



@garbineubeda

Orbeldi dantza taldea: “Guztiak merezi izan du”

Ezin oparoago joan berri zaigu Orbeldiren Dantzaroa zikloa. Antolatzailleek sare sozialen bidez plazaraturiko mezuan berri eman dutenez, “oraindik aje emozionalarekin gaude”. Lan askoko egunak bizi izan dituztela adierazi dute. “Ordu luzeetako bilera eta entsegu askoren emaitza izan dira bi asteburu hauek. Gogorra izan da, ez dugu gezurrik esango, lan handia egin behar izan dugu eta”.

Gogorra bezain gozagarria halere, eta esker oneko agertu dira herriak emandako erantzunagatik. “Guztiak merezi



'Dantzaroa' antolatzea ahalbidetu duten guztiak eskertu nahi ditu Orbeldik.

izan du, herritarrengandik jasotako harrera izugarria izan baita, eta guk ere inork baino gehiago gozatu baitugu. Mila esker, beraz, Usurbil!”. Dan-

tzaroa antolatu eta plazaratzea ahalbidetu duten guztiak eskertu ditu Orbeldik. Iragarri dutenez, datorren urtean bueltan izango da ekimen zikloa.

Uxue Murillo eta Miriam Arrillaga nagusitu ziren V. Bizkaia paleta txapelketan

Emakumezkoen V. Bizkaia paleta txapelketa apirilaren 14an hasi zen eta beste bi jardunaldi jokatu ziren ondoren, apirilaren 21ean eta 28an, hurrenez hurren. Finala aurreko asteburuan jokatu zen eta Murillo-Arrillaga bikotea nagusitu zen. Irazustabarrena-Gorostiaga bikotea azpiratu zuten Bizkaia frontoian jokaturiko norgehiagokan.

Hiru partida jokatu ziren finalean. Lehena aise irabazi zuten, 6-12 emaitzarekin. Bigarren partida Irazustabarrena-Gorostiaga bikotearentzat



Miriam Arrillagak beste txapelketa bat eskuratu du.

izan zen, 12-11 emaitzarekin. Partida erabakigarrian, 9-12

nagusitu ziren Uxue Murillo eta Miriam Arrillaga.

Errigorako produktuen banaketa Udarregin egingo da

Martxoan zehar Errigoraren produktuak eskatu zenituztenok, adi. Bidean datoz, baina nobedadeekin. Orain arte bezala NOAUA! Kultur Elkarrearen egoitzara ez, Udarregi ikastolako erdiko aretora jo beharko duzue produktuok jasotzera. Bi egun finkatu dira horretarako:

■ Maiatzak 12, ostirala: 16:00-19:00.

■ Maiatzak 13, larunbata: 11:00-13:00.

Jakin Jardunaldirako matrikulazioa

UEU-ren udako 51. ikastaroen baitako “Gizarte mugimendua: erronka berriei elkargune berriak” izeneko Jakin Jardunaldia, ekainaren 22an eta 23an izango da aurtentzen. Jardunaldirako matrikulazio epea zabalik da jada, ueu.eus atarian.

Aurrematrikulazioa Lanbide Eskolan

Maiatzaren 26ra arte zabalik izango da, 2023-24 ikasturterako aurrematrikulazio epea:

■ Presentzialki ikastetxean. Hitzordua eskatu 943 364 600 telefono zenbakian, ordutegi honetan: 8:30-17:00 (astelehenetik ostegunera) / 8:30-14:30 (ostiraletan).

■ Online helbide honetan: ikasgunea.euskadi.eus

Antzi
Partidularia
barkaria EGUENERO
afariak: OSTIRAL/LARUNBATA
☎ 943 362725
☎ 688 690 361

txirriStra
TABERNA
-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Peru Galbete zinegilea: “Joxan Artzek bere obra ezagutarazi nahi zuen, ez bere burua”

Peru Galbete ikuskizun bikoitza eskainiko du igande honetan Sutegin. Kantari gisa hasiko da eta 40 minutuko kontzertuaren ondoren, ‘Bide bazterrean Hi eta Ni kantari’ film labur berria aurkeztuko du.

NOAUA! ‘Bide bazterrean Hi eta Ni kantari’ dokumentala aurkeztu berri duzu. Joxan Artzeren poesia dago filmaren oinarrian. Noiz sortu zitzaizun dokumental hau egiteko ideia eta zer da, funtsean, lan honen bitartez azaldu nahi izan duzuna?

Peru Galbete: Dokumental honen ideia aspalditik neukan buruan. Ez nekien zer nolako forma hartuko zuen, baina buruan nuen bueltaka. Joxan ezagutu nuenean eta bere poesia irakurri nuenean sortu zitzaidan zerbait egiteko gogoia. Usurbilen bizi nintzenean, behin baino gehiagotan aipatu nion zerbait egiteko asmoa. Ez nuen oso argi nondik jo, eta elkarrizketa bat grabatzeko proposamena luzatu nion. Oso gustura hartu ninduen baina elkarrizketarena ez zuela ikusten erantzun zidan. Lauzpabost aldiz proposatu nion baina ezetz erantzun zidan guztietan. Poemekin eta liburuekin beti lotu samar zebilela, denborarik gabe... Gerora kontu-



“Joxan Artzeren poesia eta bere ikuspuntua ageri dira dokumental honetan, eta hori dena nire ikuspuntuarekin uztartu nahi izan dut”, Peru Galbete aditzera eman digunez.

PERU GALBETE

“Bide bazterrean Hi eta Ni kantari’ dokumentala Joxean Artzeren audio-poesia batzuekin egindako lan txiki bat da”

ratu naiz ez zuela bere burua ezagutarazi nahi, bere obra baizik. Ezezkoen aurrean, dokumentalaren ideia baztertu egin nuen bolada batez, baina hil zenean berriro heldu nion gaiari.

Bere obra oso zabala da, film bat baino gehiago egin

daitezke. Baina eskura ditudan bitartekoekin hau osatu dut. Joxean Artzeren audio-poesia batzuekin egindako lan txiki bat da ‘Bide bazterrean Hi eta Ni kantari’, 10 minutuko film labur bat. Lan honek ez du Artzeren obra guztia islatzeko anbizioirik. Bere poesia eta bere ikuspuntua ageri dira eta hori dena nire ikuspuntuarekin uztartu nahi izan dut.

Sormen lan bat da ala miresmen zenuen idazle bati eginiko omenaldi bat?

Hilda dagoen pertsona baten inguruan egiten duzun edozer, nahi gabe ere, omenaldi ba-

tean bilakatzen da. Hori hala da. Baina ez zen nire lehen intentzioa. Nire esker ona adierazteko modu bat den arren, sormen lan gisa planteatu dut hasieratik.

Bere liburu baten izenburutik abiatu nintzen, ‘Bide bazterrean Hi eta Ni kantari’. Bere poemetan maiz planteatu zuen hartzailearekiko hartueman, eta hori landu nahi izan dut. Ni bere poesiaren hartzailea naiz baina dokumental honen bitartez hirugarren elementu bat sartzen da jokoan, ikuslea. Hiruren arteko kontua da orain, idazlearen eta ikuslearen artean ni nagoelako.

“Poesiarekin bezala, soinuarekin ere dezente esperimentatu zuen”

NOAUA! Film hau osatzeko Joxan Artzeren audio batzuk baliatu dituzu. Hortaz, bere poesia da filmeko elementu garrantzitsuena, ezta?

Peru Galbete: Bere lanak pisu handia dauka dokumentalean. Poesia liburuak plazaratzeaz gain, soinuarekin

dezente esperimentatu zuen. Bizpahiru disko liburu plazaratu zituen eta argitalpen horietan soinu ezberdinak eta bere errezitaldiak uztartu zituen. Disko horiek artelanak dira, bere horretan. Lan horiek deskubritu nituenean ikusi nuen hor egon zitekeela film bat ga-

ratzeko bide bat.

Joxean Artzek esperimentazio-ra jo zuen maiz. Ez dakit horrelakorik topatuko ote dugun film labur honetan.

Bai, bai. Saiatu naiz Artzeren kutsu hori jasotzen eta horri nirea gehitzen. Ez da ohiko

dokumental bat; ez ditut bere audio-poesiak irudiz osatu. Niretik ere ematen saiatu naiz. Bizitza osoan zehar grabatzen joan naizen irudiak baliatu ditut eta baita nire aitaren artxiboko irudiak ere. Irudien aukeraketan denbora asko eman dut.

“Artzerekin ikasi nuen bazegoela eguneroko hitzekin gauza sakonak esateko modu bat”

NOAUA! ‘Ura sartu zen barrura’ (2020) dokumentalean bezala, lan honetan ere zure aitaren artxiboko irudiak baliatu dituzu. Berriro ere zure iragan emozionalera itzuli zarela esan al daiteke?

Peru Galbete: Ez dut horri buruz asko pentsatu, baina hala izango da. Hasteko, iraganeko artxiboarekin lan egitea deskubrimendu handi bat izan da niretzat. Argazki zuzendaritza ikasi nuenean, astebururo laburmetraia bat grabatzen genuen. Asko grabatu dut nire bizitzan eta zerbait berria grabatu aurretik, zergatik ez erabili artxiboko zerbait? Artxibo pertsonalaren kasuan, garai bateko eta egungo gauza asko nahasten dira. Eta aldi berean, ikusentzunezko lan batean uzartu daitezke batzuk eta besteak. Joko hori oso interesantea izan daiteke. Karga emozional handia du, bestalde. Zuretzat pertsonalki oso berezkoa den horri zentzu bat bilatzea, jendea horrekin identifikatu dadin. Hortxe dago erronka. Denok dugu haurtzaroaren inguruko iruditeria bat eta artxiboko argazkiek iruditeria horrekin konektatzen laguntzen dute.

Artzerekiko zaletasuna aipatu izan duzu behin baino gehiagotan. Zein izan da poeta



Igande honetan eskainiko duen filmak 10 minutuko iraupena du. Peru kantaria ere bada eta proiektzioaren aurretik 40 minutuko kontzertua eskainiko du.

PERU GALBETE

“Beste festibaletan ez dut filmaz lasai hitz egiteko aukerarik izan, eta igande honetan Sutegin aukera polita izango dugu horretarako”

usurbildarrak zugan utzi duen arrasto artistiko edota poetiko garrantzitsuena?

Askotan galdetzen didate zeintzuk diren nire erreferentziak eta horrelakoetan ez dakit zer erantzun. Izenik aipatu behar ko banu, Artze izango zen horietako bat. Oso erraz konektatu nuen bere poesiarekin, agian ez zelako oso konplexua. Derrepentean deskubritu nuen bazegoela eguneroko hitzekin gauza sakonak eta garrantzi-

tsuak esateko modu bat. Hortik heldu zidan fuerte eta horregatik, idazteko eta kantak egiteko moduan, esango nuke Artzek eragina izan duela nigan.

‘Bide bazterrean Hi eta Ni kantari’ Punto de Vista Nafarroako Zinema Dokumentaleko Nazioarteko Jaialdian aurkeztu zenuen. Orain gutxi, Dock of the Bay Donostiako musika-dokumentalen jaialdian eskaini dute. Zer nolako harrera izan du filmak?

Oso ona. Niretzako garrantzitsua zen dokumentala kalera-tzea. Lan asko bazterrean geratzen dira, argirik ikusi gabe. Film honek ere arrisku hori zuen, baina Punto de Vista jaialdikoek aurtengo edizio-rako hautatu zuten eta horri esker plazaratu ahal izan dut.

Bi jaialdian harrera ona izan du eta pozik nago jendearengana iristen hasi delako.

Sutegin ikusi ahal izango dugu igande honetan, Jexux Artze Kultur Elkarteak eta NOAUAK elkarlanean antolatutako ekitaldi batean. Zuretzat berezia izango da etxean aurkeztu ahal izatea, ezta?

Lan hau Usurbilen eskaintzeko aukera izatea garrantzitsua zen niretzat. Ez naiz hemen bizi orain, baina lotura estua dut herriarekin. Jexux Artze Kultur Elkarteak eta NOAUAK elkarlanean antolatutako ekitaldi bat izango da eta horregatik ere oso pozik nago. Gainera, beste festibaletan ez dut dokumentalaz lasai hitz egiteko aukerarik izan, eta igande honetan Sutegin, aukera polita izango dugu horretarako.

Igandean saio bikoitza eskainiko duzu. Film laburraren proiektzioaren aurretik ‘Uraren oldea’ kontzertuaz gozatzeko aukera izango dugulako. Nolako izango da kontzertua?

‘Uraren oldea’ kontzertu musikal-bisual bat da. Zuzeneko soinuz gain, irudiak ere eskaintzen ditugu. Eta une batzuetan, musika irudira moldatzen da eta beste batzuetan irudia musikara.

Usurbilgo II. Txalaparta Festa: Jexux Artze gogoan

Maiatzak 12, ostirala

■ Goizean, Udarregin Txalaparta kontzertu didaktikoa (DBH4ko ikasleekin).

■ 19:00 Salvatore elizan Txalaise kontzertua: Kimu (Txalaparta), Mixel Etxekopar (ahotsa eta haizezko musika tresna tradizionalak) eta Jesus Martin Moro (organoa).

Maiatzak 13, larunbata

■ 11:45-14:00 Herri erromeria Mikel Laboa Plazan: Adar deia, txalaparta irekia, albokariak, txalaparta irekia, txalaparta ikasleen emanaldiak, txorizo egosi eta sagardo banaketa.

■ 14:30 Bazkaria Patrin. Txartelak salgai Lizardin edo 645 008 735 telefono zenbakian

(azken eguna maiatzaren 10a).

■ 18:00 Kontzertuak herriko hainbat txokotan, Olanoe-nea plazatik hasita: Usurbilgo txalapatariak, Txotx Txalapatarta taldea, Zigoitiako Txalapatariak, Biotx.

Maiatzak 14, igandea

■ 19:00 ‘Bide bazterrean Hi

eta Ni kantari’ Peru Galbeteren laburmetraia Sutegiko auditorioan. Ondoren, kontzertua.

■ Sarrerak: 5 euro (usurbilgo-kultura.eus edo NOAUA!ren egoitzan).

■ Antolatzailea: Jexux Artze K.E.

■ Laguntzailea: NOAUA!.

“Ikuskaritzak egiten dizkigute gure ekoizpena ekologikoa dela ziurtatzeko”

2022an Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluak ekoizpen ekologikoari zuzendutako 1.199 hektarea berri ziurtatu zituen, Euskadiko nekazaritza lurren 9.104 hektarea okupatuz. % 35eko igoerarekin, Gipuzkoan izan da lurren azaleraren igoera nabarmenena, bereziki, abeltzain handien izen emategatik. Ekoizpen ekologikoan lan egiten du Arkaitz Portularrume herri-tarrak eta NOAUA! berarekin izan da ekoizpen mota honen nondik-norakoak gertuagotik ezagutzeko.

NOAUA! Baratzea daukazu herrian. Baratzeazaintza da zure bizibide bakarra?

Arkaitz Portularrume: Bai. Hasi-erian Txokoalden hasi nintzen baratzean lanean, eta oraindik ere lan egiten dut bertan Urdako lursailetan. 2013an erosi genuen Agerretxiki baserria eta hektarea bateko lursaila dauka-gu hemen. Negutegiak 2.500 metro karratu baino gehixeago ditu, ia 3.000. Baratzeazaintzatik ateratzen dut bizibidea egun.

Zeu bakarrik aritzen zara lanean edo familiakoek ere lan egiten dute?

Egun bakarrik aritzen naiz. Oso lan fisikoa da eta horrek eragingo dit urteekin. Zorionez, semea ere honetan laster hasiko den esperantza daukat, baina ez dakit berak hala egin nahi-ko duen. Langileren bat hartzea



“Zigilu ekologikoak produktu horiek pestizidarik gabe haziak izan direla esan nahi du eta horrek baratzeazaintza egin eta ulertzeko moduan eragiten du”.

ARKAITZ PORTULARRUME

Ekoizpen ekologikoaren zigilua dutenei “uste baino kontrol gehiago egiten zaizkie eta jarraitu beharreko irizpideak ere oso zehaztuta daude”

ere pentsatzen ari naiz etorkizun baterako. Noizbehinka norbait hartzen dut puntualki lantxoak egiteko, baina beste-lakoan bakarrik moldatzen naiz momentuz.

Egun merkatuan denetarikotik etiketekin bereiztutako produktuak dauzkagu: Km0, ekologikoak, bio... Jende askok ez daki egokiena nola aukeratu.

Zigiluek bereizten dituzte merkatuan dauden produktuak. Zigilu ekologikoak produktu horiek pestizidarik gabe haziak izan direla esan nahi du eta

horrek baratzeazaintza egin eta ulertzeko moduan eragina du, jakina. Km0 produktuek bertakoak direla esan nahi dute, baina horrek ez du bermatzen produktu hori ekologikoa izatea. Bi zigiluak beharko lituzte bertakoa eta ekologikoa dela ziurtatzeko. Bereizgarriak dira finean.

Zure baratzea ekologikoa da. Betidanik egin duzu modu horretan lan ala berriki hasi al zara honetan?

Baratzagintzan hasteko hautua egiteko erabakia hartzearekin batera, ekoizpen ekologikoan sartu nahi nuela argi neukan Txokoalden hasi nintzenean. Ondoren, Agerretxikiko lurretan hastean ere ekoizpen eredu bera jarraitzea erabaki nuen. Zergatik? Arrazoi hainbat daude horretarako:

1) Nire printzipio edo ideiekin bat datorren hautua

dela, jasangarriagoa: ekologikoa, dibertsifikatua (ez monokultiborantza, alegia) eta garaikoa.

2) Ekoizle txiki baten-tzat bideragarriagoa dela iruditzen zaidalako. Konbentziona-lean lan egiteko merkatua oso kopatua dago, bitartekari eta banatzaile sare handi eta oso zabalduak merkatu hori kontrolatuta daukate, lehia eta prezio borroka handia dago eta hor ekoizle txikiek ezer gutxi dugu egiteko, bereizgarriren bat ez badugu eskaintzen. Nire kasuan bereizgarria, garaian garaikoa, km0 eta ekologikoa.

3) Salmenta zuzena egiteak, bestalde, askoz bideragarriago egiten du negozioa. Salmenta zuzeneko banaketa sareetan (kontsumo taldeak, denda espezializatuak, eta abar) eskaria, batez ere, bertako produktu ekologikoena da. Zentzu horretan, nire merkatu-nitxoa hori zela garbi ikusi nuen.

Ekoizpen ekologikoan, lehen urtean ez dizute salmentarako egiten uzten, bigarren urtez jarraian ikuskaritza egitean lor dezakezu baimen hori zigiluarekin. Urtean behin edo bitan ikuskaritza bat egiten digute gure ekoizpena ekologikoa dela ziurtatzeko. Laginak hartzen dituzte eta horiek aztertzen dituzte dena ondo dagoela ziurtatzeko. Badirudi zigilua lortzea erraza dela, baina uste baino kontrol gehiago daude eta jarraitu beharreko paletak ere oso zehaztuta daude.

“Akatsetatik ikasten da, eta onartu egin behar dira”

NOAUA! Ekologikoan lan egitea zailago dela esango al zenuke?

Arkaitz Portularrume: Ez. 13 urte daramatzat horrela eta ondo moldatzen naiz.

Jakin egin behar da zer landatu, noiz eta nola landatu, zer landa daitekeen zeren ondoan eta zer ez... irakurriz eta probak eginez ikasten da hori.

Akatsetatik ikasten da, eta onartu egin behar dira. Etxean ikasi nituen oinarriko kontzeptuak eta hortik aurrera asko irakurri dut eta zailantza izan ditudanean bati

edo besteari galdetu diot.

Oraindik ere zalantza izaten ditut eta eguraldia azken urteetan izaten ari den aldaketan zaila izaten da nola jokatu jakitea.

“Salmenta zuzena egiten dut, gehienbat kontsumo taldeei lotuta”

NOAUA! Non saltzen dituzu produktuak?

Arkaitz Portularrume: Salmenta zuzena egiten dut, gehienbat kontsumo taldeei lotuta. Donostian hainbat talde dauzkatz eta astean 100 saski inguru saltzen ditut. Hiru edo lau dendatan ere banatzen ditut nire produktuak eta Udarregi Ikastolako jangelari ere nire produktuak saltzen dizkiot.

Zer egin behar da gisa honetako bereizgarriak lortzeko eta zein dira ekoizlearentzat izan ditzakeen abantailak?

Ekolurra etiketapen lan egitearen abantailak, batez ere, “berme” moduko bat izatea da. Egiaz ekologikoan egiten duzunaren ziurtagiria esango nuke. Honekin batera, ekoizle ekologikoen sarean sartzen zaituzte, halako ikusgarritasun gehitu bat emanez. Zigilua lortu eta mantentzeak bere lan gehitua suposatzen du, noski, baina abantailak ere ematen ditu. Kontsumo taldeetan, agian, zigilua bera baino garrantzitsuagoa da konfidantza, gardentasuna eta gertutasuna, baina zigiluak balio gehitua ematen dio. Aldiz, denda espezializatu edo bazkari zerbitzuak ematen dituzten enpresa konkretu batzuek ezinbesteko baldintza dute beraien hornitzaileek zigilu ekologikoa izatea. Merkatu-nitxo horietan sartzeko ezinbesteko baldintza da batzuetan.

Produktuen ekoizpenari eta jatorriari geroz eta gehiago begiratzen zaiola esango al zenuke?

Bai, orokorrean jendeak geroz eta kontzientzia gehiago du jaten duen horrekiko. Osasuntsu jatearen garrantzia geroz eta esanguratsuagoa da eta hori nabari dugu.

Uste duzu nekazaritzatik bizi-



“Ilarra, baba, azelga, tipulina, kalabazina, letxuga eta lekak dauzkatz, besteak beste, oraintxe bertan. Neguan, porrua, azalorea, ziazerbak, brokolia, aza eta halakoak izaten ditut”.

ARKAITZ PORTULARRUME

“Ekolurra etiketapen lan egiteak ‘berme’ moduko bat eskaintzen dizu”

zteza posible izango dela urte gutxian ekonomia ereduak eta erakundeak hartzen diren erabakiekin?

Denon arteko elkarlanean egin beharreko bidea dela iruditzen zait. Erakundeek legeen bidez erraztu egin behar lukete gure lana. Legeak jarri behar dira, noski, baina lagundu ere egin behar dela iruditzen zait. Nekazariak eta administrazioak batera egin behar dugu lan etorkizun oparoa sortzeko eta elkarlanean egin beharreko bidea da. Orain badaude laguntzak eta ateak joz gero lortzen dira. Agian, ez dira nahi adina, baina beti prest daude laguntzeko. Nik hasi nintzenetik ez dut inolako arazorik izan eta lagundu didate.

Kontsumitzaileok nola babes dezakegu sektorea?

Kontsumitzailea bertako ekoizpenetik sortutako produktuak,

alegia, Okm elikagaiak, lehenesten dituen momentutik ari zaio bertako sektorearen bizi-iraupenari laguntzen. Horrez gain, bidezko merkatuaren kontzientziazioa barneratzea ere garrantzitsua da, alegia, produktu merkeenak lehenetsi ordez, pixka bat gehiago ordaintzeko prest egotea, horrek ekoizlearentzat baldintza duinagoak izatea bermatuko badu. Sektore honetan lan egitea oso polita eta asegarria izan daiteke, baina badu bokaziotik asko ere. Dedikazio handia eskatzen du, inbertsio asko, lan ordu asko, opor gutxi eta eskainitako ordu guztiak kontuan izanik, ordainsaria eskasa da. Baldintzak hauek izanik, azken hamarkadetan ikusten ari gara nola belaunaldi berriek gure sektorean jarduteko gero eta prestutasun gutxiago duten. Honi buelta ematen ez bazaio, berandu baino lehen, bertako ekoizle gabezia handia izango dugu. Hori horrela izan ez dadin, sektore honentzako baldintza hobekak lortzen saiatu beharko genuke. Hor noski administrazioek badute zeregina, baina kontsumitzaileek ere bai, eta handia: erosketak egitera

joatean zein jate txiki bat hautatzean, bertan eta baldintza duinez ekoiztutako produktuak lehenestea.

San Ixidro Eguneko ospakizunak

Aurten astelehenarekin egokitu da San Ixidro eguna eta, horregatik, hilaren 14ra aurreratu dituzte ospakizunak. Hauxe da igande honetarako prestatu duten egitaraua:

Maiatzak 14, igandea

- 12:30 Ongi etorria eta haiaiketako, Dema plazan.
- 13:00 Aizkolariak.
- 13:30 Bertso-saioa eta argazkia.
- Ondoren, bertso-bazkaria Artzabalen.
- 18:00 Herri kirolak: pentatloia eta harri-jasotzaileak.
- Antolatzailea: Alkartasuna Usurbilgo Baserritarren Kooperatiba.
- Laguntzailea: Usurbilgo Udala.

Lucía Ucar dietista: “Asteko menua nola egin erakutsiko dugu”

Maiatzaren 16an ‘Askari osasuntsuak’ izeneko hitzaldi-tailerra eskainiko dute Potxoenean arratsaldeko 17:00tan hasita. Gurasoei bideratutako tailerra izango da batik bat, seme-alabei heziketa nutrizional egoki bat nola eman ikasteko. Teoria eta praktika uztartuko dituzte Lucía Ucar dietistak eta Igor Gorriti sukaldari eta dietistak.

NOAUA! Maiatzaren 16an ‘Askari osasuntsuak’ izeneko tailerra eskainiko duzu Igor Gorritirekin batera. Zer egingo duzue bertan?

Lucía Ucar: Hasiera batean hitzaldi txiki bat emango dugu pauta batzuk markatzeko umeei heziketa nutrizional bat nola eman ikasteko. Familian asteko menua nola egin erakutsiko dugu, zer hartu kontuan eta halako kontuak. Ondoren, tailer txiki bat egingo dugu ideia batzuk izateko askari osasuntsu bat nola planteatu daitekeen. Igorrek prestatu egingo ditu platera txikiak eta prozesuan ere azalpenak emango ditugu. Amaitzeko, pikoteo txiki bat egingo dugu.

Askari osasuntsuei buruzkoa izango da tailerra. Haur bantentzat otordu garrantzitsua al



“Normalean, bazkaria eta afaria nahiko ondo egiten ditugu, baina arazoa askarian eta gosarian egon ohi da”, Lucía Ucar dietistak azaldu digunez.

MAIATZAREN 16AN

Igor Gorritirekin batera ‘Askari osasuntsuak’ tailerra eskainiko du Potxoenean

da askaria?

Ez dago egunean otordu garrantzitsuagorik gainontzekoak baino. Garrantzitsuena da egiten diren otordu horiek ondo egitea. Normalean, bazkaria eta afaria nahiko ondo egiten ditugu, baina arazoa askarian eta gosarian egon ohi da. Bi otordu horietan sartzen ditugu gailetak eta halakoak. Uste dugu garrantzitsuagoa dela askariak edo gosariak hitz egitea,

orokorrean, okerrago egiten delako.

Haur guztiek behar berak izaten dituzte?

Helduen kasuan bezala, haur bakoitzak bere gustuak, ohiturak eta izaera ditu. Beraz, haur batek gosarian fruta oso erraz jan dezake, baina beste bati goizeko lehen orduan ez zaio fruta ondo sartzen eta nahiago du eguneko beste momentu batean hartu. Bakoitzaren arabera aldatu egingo dira ohiturak, nahiz eta pauta orokor batzuk izan.

Orokorrean askari osasuntsuak eskaintzen dizkiegu hau-

rrei?

Uste dut badagoela kontzientzia bat gure gizartean geroz eta indartsuagoa dena. Hala ere, familiaren arabera dira ohiturak eta batzuk haurtu oso osasuntsuak egiten badituzte ere, beste batzuk ez dute kontzientzia handiegirik. Familia batzuetan gozokiak egunero jatea normalizat hartuta dago, baina kontzientzia gehiago duten familietan badakite haur horiek ez direla egunero egin behar. Denetarik kasuak daude.

Janaria prestatzeko moduak ere eragina du janaria osasuntsua den edo ez den esaterako garaian?

Jakina. Arrautza prestatzeko modu asko daude. Frijitua ez da horren osasuntsua olio asko erabiltzen delako eta, alde horretatik, osasuntsuagoa da egosita jatea edota tortila bat egitea. Potxoenean egingo dugun tailerlean janaria prestatzeko moduez ere arituko gara eta Igorrek ahalik eta modurik osasuntsuenean prestatuko ditu elikagaiak.

Izena eman behar al da?

Bai. Usurbilkultura.eus atarian egin behar da aldezturik aurretik eta musu-truk izango da.

“Dieta kontzeptua ez zaigu asko gustatzen. Nahiago dugu ohitura onei buruz hitz egitea”

NOAUA! Egun dietak edonon aurki daitezke Interneten. Uste duzu jendea dietak egiten hasten dela oso ondo zertan dabilen jakin gabe?

Lucía Ucar: Bai. Azken finean, pertsona bakoitzak bere beharrak ditu: kirolaren arabera, gehiegizko pisua, kolesterola, diabetesa, gaixotasunak...

Ohiturek pertsonari egokituta egon behar dute. Guri dieta kontzeptua ez zaigu asko gustatzen. Dieta bat hasiera eta amaiera bat duen prozesu bat izaten da, normalean oso murriztailea. Nahiago dugu ohitura onei buruz hitz egin eta pixkana aldatuz doazen ohiturak sortzea pertsona bakoitzari moldatuta.

Sasijakintsu asko dago elikaduraz asko dakiena uste duena halako ikasketarik egin gabe.

Askok daude eta oso arrisku-tsua da, gainera. Askotan jakin gabe hitz egiten dugu edozein lekutan artikulatu bat irakurri dugulako edota sare sozialetan zerbait ikusi dugulako. Erabaki oso txarrak har daitezke modu

horretara.

Bestetik, batzuk uste dute euren buruari on egiten dielako zerbait, beste batzuei ere hala egingo diela eta hori ez da horrela izango beti.

Umekin ere hori egiten dugu, edonon zerbait irakurri eta hurrei hori ematen diegu jateko.

Sagardo Egunaren Lagunak: “Guk ere behar dugu erreleborako jendea”

40. Sagardo Eguna ate joka dugun honetan, segidan duzue antolakuntzak NOAUA!ra helarazi duen adierazpena. Errelebo eske ari dira, laguntzarako deia egin dute.

“Kaixo Lagunok: Iritsi da Sagardo Eguna, XL. Usurbilgo Sagardo Eguna.

Aurtengoan ere ilusioz ekin diogu antolakuntzari eta osatu dugu egitarau zein sagardotegi zerrenda polit bat, baina eguna borobila izan dadin zuen laguntza ezinbestekoa da.

35 sagardo postutik gora izango dira aurren ere, botatzaileak behar beharrezko dira, baina sagardo eguna hori baino askoz gehiago da, eta laguntza behar da. Basoak saltzeko postuetan, sukaldean, pintxoak banatzen, tiketak saltzen... urte askoz bolondres izaten dabilzan taldeak daude, baina ezinbestekoa da hauentzat ere jende berria, erreleboa eta laguntza, hauek gabe ere ezinezkoa baita sagardo egun bat aurrera ateratzea. Beraz, botatzaile lanetan jardutea ez baduzu gustuko, edo besterik gabe, lagundu eta gauza berriak probatu nahi badituzu, beti dago



35 sagardo postutik gora izango dira aurtengo Sagardo Egunean.

SAGARDO EGUNA

Botatzaileak behar beharrezkoak dira baina lan hauetan ere jendea beharko dute: basoak saltzen, sukaldean, pintxoak banatzen, tiketak saltzen...

toki bat zuretzat eta animatu!

Horrez gain, Sagardo Egunaren Lagunak taldea gero eta txikiagoa da, 6 lagun bakarrik gauden Usurbilgo herriarentzat hain garrantzitsua den egun honen antolakuntzan. Gehienok urte-txo batzuk badaramatzagu eta guk ere behar dugu erreleborako

jendea.

Honetarako ere eskua luzatu nahi diogu animatu eta antolakuntzara batu nahi duen guztiari. Kontuan izan, ardatz nagusi hau gabe, ez dela Sagardo Egunik eta aurrera jarraitzeko jendea ezinbestekoa dela.

Hau guztia esan eta gero, ez zaigu alde aurretik eskertzea besterik geratzen, urtero bezala, zuen zain geratzen gara urteko egunik berezienean.

Gogoratu, zuek gabe, ez dago Sagardo Egunik!

Laister arte Usurbil, gora Usurbilgo Sagardo Eguna!”

Usurbilgo Sagardoaren lagunak

40. Sagardo Eguna, ate joka

Edizio borobil honetako usurbildarren jai egun kuttunena maiatzaren 21ean ospatuko da. Hemen Usurbilgo Sagardo Egunaren Lagunak taldekoek osatu duten egitaraua. Xehetasun gehiago, datorren asteko NOAUA!rekin batera kaleratuko dugun gehigarri berezian.

Maiatzak 21, igandea

■ 11:00 Botatzaileen argazkia.

■ 11:30 Irekiera. Baserriko zein sagardotegi ezberdinetako sagardoa dastatzeko aukera. Honetaz gain, pintxo aukera zabala. Botatzaileen lehiaketa ere izango da.

■ 15:00 Botatzaileen bazkaria.

■ 17:00-20:00 Matraka Elektrotzaranga kalejiran.

■ Antolatzailea: Usurbilgo Sagardo Egunaren Lagunak.



Sagardo Eguneko egitaraua prestatzen da.

Usurbilgo Elkargunea aurkeztu dute jendaurrean



Kulturgileentzat Elkargunea sortzeko proiektua aurkeztu zuten larunbatean Aranerrekan.

Ikuskizun txiki batekin irudikatzen zuten proiektuaren filosofia eta manifestu txiki batekin



azaldu zituzten proiektuaren helburuak. Amaitzeko, aurkezpenerako propio prestatutako

abesti bat jo zuten eta Iñorkiñak taldeak kontzertua eskaini zuen goiza borobiltzeko.

Andatza Eguna, ingurumena babesteko aldarrien artean

Zenbait uneetan euri tanta artean, baina ateri eutsi zion denbora tarte zabalenean iragan igandean egin zen Andatza Eguna. Santueneko Ibai-Ondo elkartekoek banatutako jan-edanarekin eta Saizar sagardoa txotxetik edanez hamaiketako goxoa dastatu ahal izan zuten mendian gora izonek.

“Haurrak, oraindik garaiz zabilzate basoa bere onera ekartzeko”

Zirimararen familia planean parte hartu zuen Andatza Eguna bidean, haur eta guraso talde batek. “Natura zaintzen ez bada, gu desagertu egingo gara. Gure bizitokia galtzen ari gara eta hori ez badugu hala gertatzea nahi, zuen haurrei laguntza eskatu. Haurrek bai baitute sen hori, helduok denborarekin galtzen duguna, entzun, ikusi eta sumatu egiten dena. Haurrak itxaropena eta etorkizuna direnez, haien laguntza beharko dugu. Horrengatik bildu gara hemen, zuen laguntza beharko dugulako”.

Bidelagun izan zuten Ixabel Agirresaroberen azalpenekin ibilaldi berezia abiarazi zuten Txokoaldetik. Ingurumena zaindu eta babesteak duen



Familiak eta lagun koadrilak izan ziren nagusi pasa den igandeko Andatza Egunean. Gehienak goiz pasa joandakoak.

ANDATZA EGUNA

“Santueneko Ibai-Ondo elkartekoek banatutako jan-edanarekin eta Saizar sagardoa txotxetik edanez hamaiketako goxoa dastatzeko aukera egon zen”

garrantzia nabarmendu zuten. “Ibilbidea gozatu, bazterrak ikusi, ezagutu eta gozatu”, ani-

matu zituen bertaratutakoak.

Pista jokoaren antzera, bidean antolakuntzak jarritako eguzkiloreen bila aritu ziren gaztetxoak, bizi asko. Eta eguzkiloreon bueltan zeuden hitz gako eta mezuen bila baita. Adimena jokoan jarritako talde ekintzen bueltan ezin hobeto igaro zuten Andatza igotzeko bidea. Amaieran, Marik utzitako mezu hau aurkitu zuten:

Mariren mezua

“Ongi etorriak izan zaitezte basora. Zuek, haurrak, oraindik garaiz zabilzate basoa bere onera ekartzeko. Txokoalden hartu dituzuen zuhaitz kimu berriak zuek zarete. Etxean zaindu itzazue eta garaia denean lurrean aldatu. Ondoren, zuhaitzak ondo hazten badira ikus dezakezue basoa edertzen. Horrela gertatzen bada, zuei esker izango da”.



Zirimararen irteerarekin bat egin zutenek bidelagun paregabea izan zuten: Ixabel Agirresarobe. Bere azalpenekin ibilaldi berezia abiarazi zuten Txokoaldetik.

Aginagako eskolakoek arraunean uretaratu dute haien eskuz eginiko ala

Larunbatean uretaratu zuten Orioko Mutiozabal paretik erriean, udalerrri hartako ikastetxeekin batera Aginagako eskolako ikasleek eskuz eginiko ala.

Ekinean ikastea baino modu zoragarriagorik ez dagoela erakutsi dute. Ahaleginak bere emaitzak izaten dituela ikusi ahal izan dute. Auzolanak ondoko irudiotako emaitza ederra izan du. Orioko Mutiozabalen gaztetxoek eraikitako lehen ala uretaratu zuten larunbat arratsaldean egin zuten eskertza eta aitortza ekitaldian. Tailer ondoko arrapatatik behera sartu zuten uretan eta estropada sinboliko batean parte hartu zuten lerrootan protagonistak ditugun sei gaztetxoek. Orioko Zaragueta Herri Eskolako eta Orioko Herri Ikastolako bina ikasleek, eta haiekin, Aginagako eskolako beste bi kideek.

Hain zuzen, estreinakoz, ikastetxeotako ikasleek eginiko ala da hain zuzen Mutiozabal paretik Orioko plaza pareraino gidatu eta bueltan ekarri zutena. Mutiozabal Txoren Ontziolako lan taldeak sustaturiko proiektu baten harira sortu zen ontzi hau eraikitzeke proposamena. “Beraiek egindako



Orioko Mutiozabalen eraikitako lehen ala uretaratu zuten larunbat arratsaldean. Ekimen honetan Orioko Zaragueta herri eskolako, Orioko ikastolako eta Aginagako herri eskolako ikasleek hartu dute parte.

AGINAGAKO ESKOLAKOAK

Ikasleek gozatu egin dute. “Hamaiketakoaren ueña iristean, ez zituzten lanabesak utzi nahi”

lan horren emaitza da gaur uretara botatuko dugun lehen ontzi hau. Proiektu honek etorkizunean arrasto handia utzi eta halako gehiago uretaratzea espero dugu”, aipatu zuen Albaola faktoriako ordezkariak

larunbateko ekitaldian.

Lorpen handitzat jo zuen Mutiozabalen ontziolaren eraikina “zaharberritu eta mantendu izana”. Gaineratu zuenez, “apustu handia izan da. Eraikin honen barruan zer egin erabakitzea. Kasu honetan, Albaolak hezkuntza proiektu berritzailean egiteko bidea hartu zuen”.

Auzolanean eraikia

Egitasmo honen baitan, Aginagako eta Orioko ikastetxeek auzolanean eraiki dute maiatza-

ren 6an uretaraturiko lehen ala. Esperimentazioa ardatz nagusi izan duen ekimen honetan, “ez da lan makala” izan, “hezkuntza eta didaktika aldetik potentzial handia duen proiektua da”. Gaztetxoek lanabesak eskuetan hartu eta egiaztatu ahal izan dutenez, “haurrei haien jarraera erabat aldatzen zaie. Oso giro berezia izatea lortu dugu, haurrak kontzentratu eta gozatzea. Hamaiketakoaren ueña iristean, ez zituzten lanabesak utzi nahi”.

Leire Salaberria: “Esperientzia zoragarria izan da”

Aginagako garai bateko ontziolaren historiari buruzko proiektua lantzen ari zela izan zuten bertako eskolakoek Orion bideratzen ari ziren egitasmoaren berri. Gogoan izan, eginiko lana martxoaren 31n aurkeztu zieten eskolako kideek. Besteak beste, QR kodeak jarri zituzten, garai batean ontziolaren lekuko izan zen errioko puntu ezberdine-

tan. Haietako bat, Orioko Mutiozabalen dago.

Errepikatzeke modukoa

Eskolako zuzendari Leire Salaberriaren esanetan, “Mutiozabalera etorri eta ala bat egiteko aukera zutela ikusi genuen”. Ustekabean harrapatu zituen bisitak. “Ikasleek uste zuten azalpenak entzuteko saioa izango zela”. Baina ez,

lanean jardun zuten. “Erremintak eman eta ala sortzen hasi ziren. Motz geratu zitzairen ordubeteko egun bateko saioa”. Esperientzia guztiz aberasgarritzat jo zuen Salaberriak Mutiozabalen bisitakoa. “Berriz parte hartzeko prest” agertu dira, ekimen honetan parte hartzeko aukera eskertzearekin batera. “Esperientzia zoragarria izan da”.

Aitortza

Orioko eta Aginagako ikastetxeotako gaztetxoek sortutako alaren uretaratze ekitaldia izan zen iragan larunbatekoa. Bide batez, Mutiozabal ontziola urte luzez bizirik eusten jardun duen Carrera familiak eginiko ahalegina eskertu eta oroitu nahi izan zuen egitasmo honen babeslea izan den bertako Udalak.



Irati Ibargoien

FISIOTERAPIA - OSASUN ZENTROA

943 53 92 66 - 623 462 658

✉ irati.ibargoien@gmail.com

📱 @irati_ibargoien_fisioterapia

🌐 iratibargoien.com

📍 Puntapax kalea 6B.behea erk. Usurbil 20170

eskura

elikadura eta dietetika aholkularitza

·diabetesa ·hipertentsioa ·gizentasuna
·elikadura eta kolesterol arazoak

*elikadura ohiturak zure neurria aldatzen
laguntzen dizugu!*

688 843 696 ZUBIAURRENEA 1, 1C USURBIL



USURBIL
OPTIKA




PROGRESIBO,
URRUTIKO
ETA GERTUKO
BIGARREN LENTE
PAREA DOAN!

2x1

943 37 02 69

ZUBIAURRENEA 10, USURBIL usurbiloptika@hotmail.com



·Dosifikazio sistema pertsonalizatua
·Dermofarmazia
·Produktu homeopaticoak
·Maisu formulak

Iturraldebotika

Tomas Iturralde botika
33/22 PEZ

Borda berri 1, 20170 USURBIL 943 36 33 95

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO

RPS: 19/22

Nagusia 10, 1.C4 943 37 08 78 USURBIL

zenta

ORTOPEDIA BAT
BAINO GEHIAGO

Puntako teknologia zure
autonomiaren zerbitzura

- Laguntza produktuen salmenta eta alokairua.
- Etkez-etxeko zerbitzu tekniko espezializatua.
- Etxebizitzaren egokitzapena.

www.zenta.es

Osakidetzarekin
hitzarmena

Errekalde 59, Donostia 943 105 205

Kima
MASAJE LEKUA

·Kirol eta terapeutiko masajeak

Txirrindulariaren azterketa
biomekanikoa

943 366 197 Kale Nagusia, 44- behea • LASARTE-ORIA

Oinutsik

PODOLOGIA ETA POSTUROLOGIA

943 11 09 54

etorri zaitetz zure oinen eta posturaren
azterketa bat egitera!

sustraitu osasuna oinetatik

EAJ-PNV: “Talde berri bat dugu, indartsua, gaztea, ilusioz betea”

Usurbilgo EAJk udal hauteskundeetarako osatu duen taldea aurkeztu zuen aurreko ostiralean Artzabalén. Jakinmina eragin zuen ekitaldiak, jende asko bertaratu baitzen. Maiatzaren 28ko udal hauteskundeetan Xabier Otxoa izango da alkatetza eta alboan izan zituen aurpegi berriak nahiz aurreko legealdietako hainbat alderdikide. Otxoak denentzat izan zituen esker oneko hitzak.



Artzabalgo ekitaldirako ipini zituzten eserlekuak berehala bete ziren eta jende askok zutik jarraitu zuen ekitaldia.

Mugikortasuna

Xabier Otxoa duela hilabete batzuk etorri zen hona bizitzera, eta bidegorri sarearekin harrিতa geratu zen. “Ez dakit non hasi eta non amaitzen den. Plangintza falta nabarmena da eta hori kudeaketa eskas baten isla da”.

Herriko sarrera bakarra N-634koa izatea ere harrigarria egin zitzaion. “Jende asko dabil bertan, oinezkoak, txirindulariak... Sarrera bakarra hori izatea ez zait nahikoa iruditzen eta gainera segurtasuna dago jokoan. Proposatzen duguna da beste errepide berri bat eraikitzea, Aritzetako zerbitzugunetik Kalezarerraino”. Eta inguru horretako lur sailetan “etxebizitza berriak eraikiko genituzke, gazteen emantzipazioa errazteko”. Hau guztia prozesu luze baten emaitza litzateke ordea, “ez da egun batetik bestera egiten”. Birtartean, Xabier Otxoak ideia hau jarri zuen mahai gainean: “Foru

EDUKIONTZIAK, ATEZ ATEKOAREN ORDEZ

“Egungo sistema ez da jasangarria. Jendea motibatatu beharrean, inposaketa eta isunak erabili dira”

Aldundiarekin batera N-634 errepideko herri-sarrerak egokitztea proposatzen dugu, biribilguneen bitartez”.

Hondakinen kudeaketa

Hondakinen arloan, Usurbilgo EAJ atez atekoa kendu eta edukiontzi bidezko sistema jartzearen alde agertu zen. “Askoz jasangarriagoa da ekonomiko-ki, birziklatze-tasak antzekoak lortzen direla demostratu da eta herritarrek askatasun osoa izango dute zaborra nahi dutenean botatzeko; ez dira mugatuta egongo, eta ez dira zelatatuak izango”.

Zaintza-politikak

Pertsonen babesa eta zahartzein zaintza-politika aktiboak bultzatzeko asmoa ere azaldu zuen Xabier Otxoak. “Duela bi aste, Maddalen Iriarte hona etorri zen eta Matiako proiektua (Kalezarren eraikitzen ari direna) EH Bilduren ekarpen gisa saltzen zuen. Gauza bat dut esateko: Matiako proiektua aurrera atera bada, Eusko Alderdi Jeltzaleak Foru Aldunditik bultzatu duelako izan da”. Honi lotuta, ondoko hausnarketa egin zuen hautagai jeltzaleak: “herrigintzan berdín da nork proposatzen duen zer, baina uste dut zintotasunez jokatu behar dela, ezin dela gezurretan ibili”.

Bestelako egitasmoak

Enpresa teknologikoak erakartzeko, “industria-gune berri batzuk eraikitzea proposatzen dugu eta dauden industriaguneak eraberritzea, enpresen-

tzat erakargarriago izateko”.

Eta kirol arloan, proiektu hau garatu nahi du EAJk: “eskubaloiko kantxa estali berri bat eraiki, kiroldegiko kantxaren zati bat aprobetxatuz”.

Aukera berrien aldeko apustua, EAJren eskutik

Ekitaldia amaitu aurretik, Xabier Otxoak udal hauteskundeetan jokoan egongo dena azpimarratu nahi izan zuen: “Maiatzaren 28an bidegurutze batera iritsi behar gara eta Usurbilgo jendeak erabaki beharko du betiko politika grisetan, sumisioan eta konformismoan jarraitu ala EAJren eskutik aukera berrien aldeko apustua egin. Hori dena hautatu beharko da maiatzaren 28ko udal hauteskundeetan”.

EAJ-PNVren hautes-zerrenda

1. Xabier Otxoa Muñoz.
2. Ivan Iriondo Axpe.
3. Josune Urkola Larrarte.
4. Andoni Atxega San Sebastian.
5. Mirari Azurmendi Sorazu.
6. Agurtzane Egibar Artola.
7. Carlos Perez Fraisoli.
8. Mari Jose Ibarгойen Lizarazu.
9. Alejandra Arrieta Varela.
10. J. Mari Zubeldia Arrieta.
11. Julian Beraetxe Aranburu.
12. Lourdes Jauregiberri Goenaga.
13. Jose Mari Zubiria Eguzkiza.

Ordezkoak:

Jose Mari Olaizola Orbegozo.

“Adostasunaren, elkarlanaren eta akordioaren garaia da”

Ivan Iriondok egitasmo estrategikoak zerrendatu zituen. Usurbilgo Udalak aukera asko galdu dituela esan zuen (ur bizien proiektua, tren geltokiaren berritzea, bidegorri sarea, Haur Eskolaren doakotasuna...). “Xextran

eta borrokan egon beharrean, adostasunaren, elkarlanaren eta akordioaren garaia” dela adierazi zuen Iriondok. Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin batera lan egiteko ordua dela azpimarratuz.

Auzoak biziberritzearen alde

Auzoen eta herri-gunearen arteko ezberdintasunak gaitzetzeko hainbat egitasmo ditu alderdi jeltzaleak. Aginaga eta Txokoalde biziberritzeko adibidez, gazteei erraztasunak eman behar zaizkie, “etxebizitza

sozialen sustapena erraztuz”.


Santuenetik Zubietara doan bidea egokitzearen aldekoak dira, “errepidea zabalduz”.

Bestetik, Usurbilgo kaxkoa eta auzoak hurbiltzeko, EAJk uste du barne-garraioa indartu behar dela.

Foru Aldundiko Kultura departamenduak Joxan Artze beka sortu du

Doktorego tesiak euskaraz egitea sustatzeko beka deialdia sortu du Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura Departamenduak eta hari, usurbildar baten ize-na jarri dio; Joxan Artzerena. “Doktorego aurreko ikerketa proiektuen saria” horixe da Diputazioak sortu duena. Aurrez, Euskal Herriko Unibertsitatearekin lankidetzan martxan jarria zuten Mikel Laboa Kadetraren baitan txertatu dute Joxan Artze beka deialdia. Mikel Laboa Katedra, aldiz, “euskaraz buruzko ikerketa zientifikoa” sustatzeko abiarazi zuten.

Beka deialdia sortu ez ezik, lanak aurkezteko epea ere zabaldu du Foru Aldundiak, maiatzaren 23ra arte hain zuzen. Ikerketa zehaztu dute. Hauxe da: “XX. mendearen bigarren zatiko euskal lirika, egileak, obrak, nahiz horien itzulpenak; euskal poesia nahiz narratiba eta drama lirikoak, euskal lirikaren lotura beste literatur genero eta arteekin, XX. mendearen bigarren zatiko egile lirikoak, horien eragina ondorengo literaturan nahiz, oro har, kultur sorkuntzan eta itzulpen gintzarekin izan dituz-



“Hautatutako pertsonak doktorego aurreko urtebeteko kontratu bat lortuko du”.

JOXAN ARTZE BEKA

“Lanak aurkezteko epea ere iragarri du Foru Aldundiak: maiatzaren 23ra arte”

ten loturak”.

Tesia EHU

Deialdi honen prozeduraren nondik norakoak berri eman dute baita. “Hautatutako pertsonak doktorego aurreko urtebeteko kontratu bat lortuko du, beste hiru urtez luza daitekeena, Euskal Herriko Unibertsitateko sail edo institutu batean

tesi bat egiteko. Doktorego aurreko kontratu hori EHUren bitartez formalizatuko da. Doktoregaiak urtero aurkeztuko dio Mikel Laboa Katedraren zuzendariari, irailaren 15a baino lehen, urtean egindakoaren txostena eta hurrengo urteko eginkizunen aurreikuspena. Txosten hori tesi-zuzendariak sinatuta entregatuko da. Txostenaren ebaluazioaren arabera berrituko da kontratua. Aurkeztutako curriculumak eta tesi-proiektuak Mikel Laboa Katedrak izendatutako hiru adituz osatutako hautaketa batzorde batek baloratuko ditu”.

AEK-k prest du udako eskaintza

Bizi euskaraz hurbiletik aldarriaren bueltan plazaratu du Etumeta AEK euskaltegiak uda parterako antolatutako eskaintzaren berri:

- Euskaraz ikasi eta seme-alabekin euskaraz aritzeko familia barnetegiak: uztailak 3-14/17-28/uztailak 31-abuztuak 11.
- Euskaraz bizi eta azterketak prestatzeko euskaraz eskolaz eskainiko dituzten bi asteko barnetegiak.
- Online bidezko nahiz euskal-



Ikastaroei buruzko informazio gehiago jasoko duzue aek.eus web orrialdean.

tgetietako ikastaroen: A1, A2, B1, B2, C1, C2 mailak.

Informazio gehiago: aek.eus atarian.

Zirimara, hurrengo ikasturtera begira

Hurrengo ikasturteko Eskola Kiroleko Zirimara (LH1-2-3-4) eta multikirolen (LH5-6) informazioa eman eta plangintza aurkezteko informazio bilerak deitu dituzte.

Maiatzak 11 osteguna

LH5-6 mailatan egongo diren ikasleen familientzat (Agerialdeko jangelan, 17:00etan).

Ate irekiak

Zirimara hobeto ezagutzeko ate irekien saioak antolatuta dira:

Zirimara Usurbilen:

- Maiatzak 16. HH5-LH1-LH2 (16:30 – 18:30).
- Maiatzak 11 eta 18. LH3-LH4 (16:30 – 18:30).

Zirimara Zubietan:

- Maiatzak 10 eta 11. 16:45-18:15.

Zirimara Aginagan:

- Maiatzak 15. 16:45-18:15.

Zirimara familian

- Maiatzak 16. 0-6 urte, 17:30-18:30.

Izen-ematea

- Maiatzaren 15etik 26ra.
- Online bideratu beharko da, esteka honetan: labur.eus/sxQf4
- Ordainketa: ES45 3008 0259 1121 8354 1214 (ikastolako kontu korrantea).
- Ordainketaren agiria helbidera honetara bidali behar da: eskolakirola@udarregi.eus

Kzgunea goizez zabalduko dute

maiatzean

Maiatzean goizez zabalduko dute Usurbilgo Kzgunea, 9:00-13:00 artean.

GHK-k Arkaitzerrekan egin nahi dituen obren berri eman du

Arkaitzerreka izan dugu hizpide azken urteotan, bereziki erraus-tetitik 2020ko maiatzean eta 2022ko uztailean izandako isurketek ehunka arrain hil eta kutsatu zutenetik. Iazko udan, etenik ez zuen bigarren isurketaren ostean, Arkaitzerrekan ponpaketa-sistema bat eraikitzeko baimena eskatu zuen Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak, GHK-k. Gerora, GuraSOSek azaroa amaieran deitutako mobilizazioan salatu zuen moduan, asmoa, erraus-tetitik Arkaitzerrekara isuritako kutsadura Loiolako araztegiara eta handik itsasora bideratzea zen, aipatu ponpaketa-sistema hori eraikita.

Aldaketak proiektuan

Orain proiektu horretan aldaketak izan direla berri eman du GHK-k, Uraren Euskal Agentziak maiatzaren 3ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara emandako iragarkian. “Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa(e)k (IFZ: G20960183) baimena eskatu du hau egiteko: Donostiako udalerrian (Gipuzkoa), Zubietako auzoan Arkaitz erreka-ostora isurtzen duen cmg1 plataformako ibarbidearen hondoko drain-hodiaren irteerara ponpaketa-sistema bat eraikitzeko obrak”.

Zenbait obra

Orain, ordea, “proiektua aldatu ondoren”, obra hauek



Arkaitzerrekan izan ziren isurketen ondoren dator erabaki hau.

OBRAK

“Ponpaketa-putzu berri bat egin nahi da Arkaitzerrekaren hondoko drain-hodiaren irteeran”

egingo direla ohartarazi du. “Ponpaketa-putzu berri bat egingo da Arkaitzerrekaren ondoko hondoko drain-hodiaren irteeran, 2,00x2,00 m²-koa, eta PEko Ø100 mm-ko bultzadako hodia egingo da putzutik plataformaren zati horizontaleko belardira iritsi arte, eta bertan 150 m³-ko edukierako atxikipen-depositu bat jarriko da. Behin biltegitratzeko andean biltegitratuta, non andelak 40 ordu baino gehiago izango ditu biltegitratzeko 1 l/s-ko ponpatze-emaria kontuan hartuta, urak aztertuko dira”.

Horren ostean hiru aukera daudela gaineratu du: ponpatutako ura udaleko saneamentu-sarera konektatzea, halako

baimenik ez badago “edo libixiatuaren osakerari buruzko zalantzarik badago, ura andelak duen ponpa beraren bidez desbideratu ahal izango da eta zisterna-kamioietan deskargatu ondoren libixiatua kanpoan tratatzeko”. Hirugarren eta azken aukera; “isurketarik ez badago eta isurketan kutsadura-zantzurik ez dagoela egiaztatzen bada, zorrotzen mailakatura arindu ahal izango da isurketa, erreka itzultzeko”.

Erabaki hau jendaurrean jarri du Uraren Euskal Agentziak, GAO-n berri eman duenez, maiatzaren 5az geroztik 23 egun balioduneko epean. “Horrela, obra horiek kalteak eragiten dizkietela irizten dutenek erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte, epe horren barruan, hemen: Uraren Euskal Agentzia - Ekialdeko Kantauriar Arroen Bulegoa. Era berean, bulego horretan bertan egongo da espedientea, nahi duenak aztertu ahal izan dezan”.

Garbitaniaren lan poltsetarako deialdia

Garbitania Zero Zabor S.M.-k gidari-biltzaile eta peoi balioanitzen lan poltsak eratzeko deialdia iragarri du. “Hautatutako pertsonak Garbitanian sor daitezkeen beharrak estaltzeko (ordezkapenetrako eta iraupen jakin zein postu finkoak estaltzeko) kontratuak izango dituzte (mugagabe edo iraupen jakinekoak)”.

Kurrikulumak bidaltzeko epea, maiatzak 26

Eskabideak maiatzaren 26a baino lehen egin beharko dira bideotatik:

■ Garbitaniako bulegoetan, astelehenetik ostiralera, 9:30-14:00 artean.

■ Posta bidez, helbide honetan: Lastaola poligonoa 3. A-12 eraikina. Ereñotzu auzoa, Hernani.

Xehetasun gehiago:

garbitania.eus atarian.

Hiru udalez osatzen da Garbitania

Garbitania “hondakinak gaita bildu eta kudeatzeko baliabideak ahalik eta gehien optimizatuz, bere bazkide diren udalerriei kalitatezko zerbitzua eta prezio justua eskaintzen dizkien entitate publikoa gara”.

Astigarragako, Hernaniko eta Usurbilgo udalek osatzen dute Garbitania. 57 langile ditu egun; 11 teknikari eta 46 biltzaile-gidari eta kale-garbitzaile.

Hauteskunde kanpaina maiatzaren 12an hasiko da ofizialki

Maiatzaren 12an emango zaio hasiera ofiziala hauteskunde kanpainari. Hilaren 26ra arteko epea izango dute eragile politikoei herritarren bozka eskatu eta proposamenen be-

rrir emateko. Gogoan izan, hilaren 28an egingo dira udal eta foru hauteskundeak. Zubietako Herri Batzarra berritzeko bozketa eguna ere izango da. Egundorretan, hautesleketan

lan egitea egokitu zaien herri-kideak zozketa bidez hautatu zituen Udalak apirila amaierako osoko bilkuran.

Usurbilgo alderdien hautes-zerrendak, alkategaiei

elkarrizketak eta hauteskunde-programen berri maiatzaren 19ko eta 26ko NOAUA!rekin batera kaleratuko ditugun gehigarrietan jasoko duzue.

Uxue Diaz, erizaintzako ikaslea: “Azken unean Txilera etortzea erabaki nuen eta oso pozik nago”

Txileko hiriburura, Santiagora eraman du Uxue Diez herritarra elkartruke programak. Erizain ikasle gaztea hango ospitale batean dabil etorkizunerako zoiltzen eta bizipen berriez gozaten. NOAUA!rekin izan da esperientziaren nondik norakoak partekatzen.

NOAUA! Noiztik zaude Txilen eta zertara joan zara bertara?

Uxue Diez: Duela urtebete elkartrukea egiteko aukerak aztertzen hasi nintzen. Hasieran Europan geratu nahi nuela oso argi neukan, baina unibertsitateak oso aukera gutxi zituen Europan. Lau aukerako eskaintza bakarrik zegoen kontinente zaharrean eta ez ninduten bereziki erakartzen. Azken momentuan iritiz aldatu eta Hegoamerikako aukerak begiratzen hasi nintzen, eta horien artean Txile egin zitzaidan erakargarrien. Santiagoko Unibertsitatea jarri nuen lehen aukera gisa eta bertan nago orain. Jende asko ezagutzen dut Txilera etorritakoa eta denek oso gustura egon zirela esan zidatenez, etortzeko erabakia hartu nuen.

Otsailaren 13tik nago hemen, baina praktikekin martxoaren 5ean hasi ginen. Erizaintzako bost ikasle iritsi ginen batzuk Bilboko kanpusekoak eta besteak Donostiakoak.



“Otsailaren 13tik nago hemen, baina praktikekin martxoaren 5ean hasi ginen”.

UXUE DIAZ

“Erizaintza ari naiz ikasten. Nahikoa erraza egin zitzaidan bi unibertsitateen arteko lotura egitea”

Txilen aukera izaten ari zara hemen egin beharko zenituzkeen ikasketa berak egiteko?

Erizaintza ari naiz ikasten. Nahikoa erraza egin zitzaidan bi unibertsitateen arteko lotura egitea. Aukera eman zidaten praktikak egiteko edota praktikak eta klaseak. Bigarren aukera hautatu nuen unibertsitatean lagunak egin ahal izateko.

Horrez gain, unibertsitatean txiletar batzuekin ere harremandu gara.

Nola definituko zenituzke txiletarrak?
Orokorrean euskaldunak baino askoz irekiagoak dira. Iritsi berritan, lehen egunetan, oso

teko eta esperientzia ahalik eta zabalena izateko. Azkenean, arazo batzuk medio, klasera joateko aukera kendu zidaten eta bakarrik praktikak ari naiz egiten. Oso gustura nago hautu horrekin.

Iritsi zinenetik bidaiatzeko aukera izan duzu?

Iritsi berritan kostaldera joan ginen egun batzuk pasatzera hondartzara. Martxoan uda da hemen eta aprobetxatu egin nahi genuen. Itzuli eta hiru egunera Boliviara joan ginen eta Atacamako desertura ere bai. Azken hori Txilen bertan dago. 10 eguneko bidaia luzea izan zen. Orduetik, bidaia txikiak egin ditugu kostaldera: Valparaiso, Viña del Mar...

Pisu batean edo ikasle-egoitza batean bizi zara? Norekin?

Bost iritsi ginen; Donostian ikasten ari garen bi eta Bilbon ikasten duten hiru. Bi ikasle-etxetan bizi gara, elkarren alboan dauden bi eraikin dira. 7-8 ikasleko etxeak dira, bakoitza bere gela eta komunarekin. Gainontzekoa partekatu egiten dugu denon artean. Gurean Txileko bi, katalan bat, bi euskaldun, italiar bat eta Amerikako Estatu Batuetako beste bat bizi gara. Lagunen etxean, berriz, frantsesak eta belgikarrak bizi dira, batez ere.

“Santiagon dauden euskaldunak ezagutzeko aukera izan dugu”

NOAUA! Egunerokoan bostok batera ibiltzen zarete edo beste batzuen lagun ere egin al zarete?

Uxue Diaz: Bidaiak gure artean egin ditugu eta gehienetan bestelako planak ere bostok egiten ditugu. Egunerokotasun oso antzekoa dugu de-

nok ikasketa berdinak egiten ditugulako eta hori ere lagungarri da. Etxekoekin ere planak egiten ditugu noizbehinka eta Santiagon dauden euskaldunak ezagutzeko aukera ere izan dugu. Santiagon euskaldun pila bat daude eta batzuetan nahi gabe ezagutzen

galduta geunden eta edonor hurbiltzen zitzaigun laguntza eskaintzera. Gu baino gehiago ere hitz egiten dute. Unibertsitatean hasieratik hurbildu zitzaizkigun txiletarrak planak proposatzera. Euskal Herrian ez dugu horrela funtzionatzen orokorki.

“Larrialdietan ari gara praktikak egiten. Auzo pobreeta jendea artatzen dugu”

NOAUA! Zer egiten duzu egunerokoan?

Uxue Diaz: Orain praktikekin gabilta burubelarri. Bi egunetan praktikak egin behar izaten ditugu eta beste bi libre izaten ditugu. Gisa horretan etengabe. Libre dauzkagun egunak Santiagon ibiltzeko aprobetxatzen ditugu eta gainontzean praktikak egiten ditugu. Ospitaleko txandak oso luzeak izaten dira: 12 ordukoak. Larrialdietan ari gara egiten praktikak. Ospitale publikoa da gurea, Santiagoko zonalde pobreenean gaude edo behintzat baliabide gutxien dituzten zonaldean. Santiagoko hiru auzo pobreentako jendea artatzen dugu bertan. Pazienteen egoera ere oso ezberdina Euskal Herrikoarekin konparatuta, bai eta ospitale barneko baliabideena ere. Materiala eta medikamentuak ere oso oinarritzkoak dira. Gaixo pila bat egoten dira zain eta oheak ere ez dauzkagu gehiegi. Oso interesgarria da egoera; hemen egoera batzuk ikusten ari gara



“Bi egunetan praktikak egin behar izaten ditugu eta beste bi libre izaten ditugu. Gisa horretan, etengabe”. Argazkian, Txileko Santiago hiria.

UXUE DIAZ

“Ospitaleko txandak oso luzeak izaten dira; 12 ordukoak”

Euskal Herrian sekula ikusiko ez genituzkeenak.

Bidaiatzeko aukerarik izan duzu?

Elkarrizketa hasieran aipatutakoak, batez ere. Orain praktiketan zentratuta gaude eta bi egun lan eta bi jai egite horrek ez digu aukera handirik ematen bidaiatzeko. Hala ere, aukera

eman digute elkartrukean gauden ikasleoi egun batzuk libre hartzeko. Beraz, maiatzean pare bat asteko bidaia bat antolatzen ari naiz. Buenos Airesera joango gara Iguazuko ur-jauziak ikustera eta Uruguayra. Ahizpa bisitan dator eta bidaia eder hori egiteko aprobetxatu nahi dugu. Buenos Airesen kuadrillako batzuk dauzkat elkartrukean eta bertan elkartuko gara. Ekainaren 9an amaituko ditugu praktikak eta uztaila amaiera arte libre egongo gara. Bitarte horretan Perura joan nahi dugu eta hortik aurrera ez dakigu oraindik oso ondo zer egingo dugun. Brasilerara joango gara agian, edo Txile hegoaldera edo. Oraindik hori dena antolatu beharra daukagu. Txilen bidaiatzeko hegazkinak nahiko merke eskura daitezke denboraz ibiliz gero. Inguruko herrialdeetara joatea garestiagoa da eta autobusen aukerari begiratzea interesgarria izan daiteke bidaia ekonomikoagoak egiteko. Garraibideak dira garestienak inguru hauetan, hostalak nahiko merke eta erraz aurki daitezke.

“Datorren urtean amaituko ditut ikasketak”

NOAUA! Etxetik ere zerbait falta botako duzu, ezta?

Uxue Diaz: Orokorrean nahiko ondo egokitu naiz, baina lagunak eta familia beti botatzen dira faltan. Gainera, Santiago oso handia da eta dena urrun dago. Usubilen bost minutu

oinez eginda beharrezko guztia eskura daukagu eta hori ez da hemen gertatzen. Segurtasuna ere ez da bera hemen. Kalean gauez lasai ibiltzea ez da ohikoa hemen. Mugikorra ezkutan eramateko esaten digute eta ezkutan ibiltzeko gauez.

Lasaitasuna botatzen dut faltan, kalean aske sentitze hori.

Zein asmo dituzu datozen urteetarako?

Datorren urtean amaituko ditut ikasketak. Pentsatu dut udan lan egitea, posible bada behin-

tzat. Iraila iristean ez dakit, beti esan izan dut ez dudala zuzenean lanean hasi nahi. Ikasten jarraitu nahi dut, baina ez dakit oraindik master bat egin edo lan egin eta ikasi biak batera. Ikusiko dugu datorren urtean.

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
eguneko menua · asteburuko menua
oilasko erreak, ogitartekoak, razioak..
paellak enkarguz!
943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usubil.


EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

Zuen
publizitatea
hemen
943 360 321
publizitatea@noaua.eus

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
943 370 008

Ipuin kontaketa ugari Sutegin

Literaturazaleak zorionekoak dira egunotan. Sutegiko udal liburutegiak ekitaldi ugari iragarri baititu datozen egunetarako.

Maiatzak 10, asteazkena

■ 18:00 Literatura solasaldia LH6ko gaztetxoekin, Yolanda Arrietak bideratua. Miren Agur Meabe idazlearen *Bihotzak Dun-Dun* (Elkarlanean) liburua aztertuko dute.

Maiatzak 18, osteguna

■ 18:00 Ipuin kontaketa liburutegian HH4ko haurrentzat Miriam Mendozarekin.

Maiatzak 23, asteartea

■ 18:00 Ipuin kontaketa HH5eko haurrentzat liburutegian, Ixabel Agirresaroberekin.

Maiatzak 25, osteguna

■ 18:00 Ipuin kontaketa liburu-



Txani Rodriguezek Euskadi Literatura Saria jaso zuen gaztelerazko kategorian, 'Los últimos románticos' eleberriari esker.

IPUIN KONTALARIAK

“Lau ipuin kontalari arituko dira hilabete honetan Sutegin”

tegiak 6 urtetik gorako haurrentzat, LH1etik aurrerakoentzat, Dorleta Kortazarrekin.

Ekainak 6, asteartea

■ 19:00 Gaztelerazko solasaldia. Txani Rodriguezen *Los últimos románticos* (Seix Barral) liburua aztertuko dute egilearekin berarekin.

Oharra: liburuon aleak Sutegi udal liburutegian eskuragarri. Antolatzailea: Sutegi udal liburutegia.

Sendabelar-tailerra Santuenean: etxerako garbitasun produktuak

Maiatzaren 12an, 17:30-19:30 artean, Santuenea elkarteak antolatuta bilgunearen egoitzan bertan, 'Sendabelar-tailerra: etxerako garbitasun produktuak' saioa. "Etxerako erabiltzen ditugun garbitasun produktuen osiera zein den aztertu eta aukera jasangarriagoak erabiltzen saiatuko gara". Izen-ematea: 10 euro (elkarreko bazkideek 7 euro), 670 027 731 telefono zenbakian.



Tailerra ostiral honetan egingo da baina izena eman behar da aurretik.

Usurbilgo pilota txapelketak urrezko ezteiak ospatuko ditu

Usurbilgo pilota txapelketa 50. ediziora iritsi da. Maiatzaren 26an jokatuko dira lehen kanporaketak eta uztailearen 2an argituko da bikote garailea, Santixabel eguneko final handian.

Maiatzak 26 ostirala, 19:30

Etxezarreta-Aranguren Ruiz de Larra.-Garmendia

Lizeaga-Beloki Arribillaga-Azpiroz

Maiatzak 27 larunbata, 18:30

Alberdi-Irazustabarrena Garcia-Cordon

Urbietta-Erasun Urkizu-Labaka

Ekainak 2 ostirala, 18:30

Apezetxea-Apezetxea Orbegozo-Aranburu

Ekainak 3 larunbata, 18:30

Elola-Aizpuru Odriozola-Alonso

Santxo-Urruzola Zabaleta-Olaiz

Ekainak 4 igandea, 11:30

Astiz-Villabuena Barbajero-Garatea

Kadete mailako txapelketa

Senior txapelketaz gain, Pagazpek kadete mailako txapelketa antolatu du eta "finalurrekoak ligaxka moduan jokatu dira". Lau bikote arituko dira: Alejo-Errasti (Pagazpe). Zufiria-Oñate (Behar Zana). Aburuza-Pagola (Añorga). Perurena-Elola (Tolosa).

1. Jardunaldia:

Ekainak 2 ostirala, 18:30
Alejo-Errasti/Perurena-Elola

Ekainak 4 igandea, 11:30

Zufiria-Oñate/Aburuza-Pagola

2. Jardunaldia:

Ekainak 9 ostirala, 18:30
Alejo-Errasti/Zufiria-Oñate

Ekainak 11 igandea, 11:30

Aburuza-Pagola/Perurena-Elola

3. Jardunaldia:

Ekainak 16 ostirala, 18:30
Alejo-Errasti/Aburuza-Pagola

Ekainak 17 larunbata, 18:30

Zufiria-Oñate/Perurena-Elola

Kadete mailako txapelketaren finala:

Uztailak 2 igandea.



Argazkian, iazko finalistak.

Gipuzkoako txapelketa

Gipuzkoako txapelketako hiru partida jokatu dira ostiral honetan.

Maiatzak 12 ostirala, 18:00

Alebinak 2. Maila (binaka)
Pagazpe 1-Intxurre 3

Infantilak 2. Maila (binaka)

Pagazpe-Lapke 4

Kadeteak 2. Maila, 4 1/2 ko txapelketa

Pagazpe-Murumendi

ETXEBIZITZA**Salgai****Alokairuan**

Lanerako gela bat eskaintzen da, zerbitzuertarako primeran: fisioterapia, masajista, psikologia etab. egokitua. Jarduera lizentzia duen pisua da, igogailua, bainugela, sukaldia eta itxarongela barne. WiFi eta elektrizitatea barne. Kopapena eta sarbide ona. 2020an berritua. 670 410 273.

Usurbilen, kaxkoan edo auzoetan mutil batentzako pisu bila nabil. 622925562

Ekainaren 26tik abuztuaren 26ra bizitzeko moduan dagoen etxe bat alokatu nahiko nuke. Familiarteko baten egonaldiako litzateke. 636711514

Usurbilen 2 edo 3 logelako etxea alokatu nahiko genukeen aita eta 13 urteko semea gara. 683548749.

Logela bila nabil Usurbil, Aginaga aldean. 643 830 772 (Luis).

MOTORRA**Salmenta, garajeak**

Garaje itxia salgai herri sarrean. 646 601 947. 18:00etatik aurrera deitu.

Munalurra 4 zenbakian lokal bat daukagu alokatzeko. 70 metro koadro ditu eta sarre-rako atea handia dauka materialak erraz sartu eta ateratzeko. 652765583

Gutxi erabilitako lau gurgil salgai (195/65R15 91H). 200 euro. 671 54 75 67.

Aginagan, Elutx kalean 30 m² garaje itxi bat salgai. 629 460 966

Marradun garaje plaza bat alokatzeko da Kale Nagusian, Bizkarren. 687 406 209.

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Zubietan etxeko lanak egiteko pertsona bat behar dugu lanaldi erdian. 695 783 202.

Zaintzailea behar dugu aste-buruetan pertsona heldu baten tentzat. Euskalduna bada hobe. 616 273 785.

Sukaldari bat behar dugu Kalezarko Matiaren zaintzadun etxebizitzan auzuneko kafetegirako. 670 654 272.

Lan egin nahi duzu zerbitzari bezala 40 orduko kontratu batekin? Animatu eta deitu hona: 680483164

Batxilergoko lehen mailako ikasle bati euskaraz matematikako klase partikularrak eman-go dizkion pertsona baten bila gabiltza. 608201745

Klase partikularrak emateko prest dauden zerranda osatzen ari da Udarregi Ikastola. 943 36 12 16.

Zerbitzaria behar dugu aste-buruetan, 12:00-19:00 artean lan egiteko Olarrondon. 626 686 036

Guria Tabernan sukaldari laguntzailea behar da asteburuetan lan egiteko. 677 20 87 44

Saizar Sagardotegian zerbitzaria behar da asteburuetarako, ostiral iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko. 660788832.

Lan eskaerak

Orduka garbiketa-lanak egingo nituzke. Garbiketa-lanak egiten esperientzia. 602 082 583.

Emakume bat, interna bezala lan egiteko prest, etxeko lanak edo adinekoak zaintzen: 602 586 014.

Orduka edo jornada erdiz etxeko garbiketarako egiten ditudan 50 urteko emakume bat naiz. 643 576 129.

Pertsona helduak zaintzen edo

etxeko lanak egiteko lan bila dabilen neska euskaldun bat naiz. 626 604 527

Haurrak zaintzeko eta ingelesko klaseak emateko prest dagoen neska euskaldun gaztea. 697 46 55 55 (Olatz)

Kurtsoan zehar arratsaldez haurrak zaintzeko prest eta esperientziarekin. 695 184 179 (Ane)

BESTELAKOAK

Erloju digital bat aurkitu dugu Agerialdeko patiorako sarreran, Arratzain bideko espaloian. Erlojua beltza da eta pausoak neurtzen dituen horietakoa da. Galdu duenak Udaltzaingoa galdetu, bertan utzi dugu.

Abenduaren 28an Gabonetako Haur Parketik bueltan jantzita genuen zapatiletako bat (Adidas markakoa, beltza) beste norbaite-na dela jabetu gara. Gure zapatiletako bat beste batek jantzita eraman zuen. Inor honetaz jabetu bada deitu: 687 779 669.

Futbol partidak**Haranen:****Maiatzak 13, larunbata**

■ 09:15 Infantil neskek:

-Usurbil FT A

-Landetxa KT

■ 10:30 Kadete neskek:

-Usurbil FT

-Elgoibar CD

■ 16:00 Jubenilak:

-Usurbil FT B

-Texas CF

■ 18:15 Erregionalak:

-Usurbil FT B

-Astigarraga Mundarro B

Maiatzak 14, igandea

■ 10:00 Futbol Eskola.

■ 17:00 Preferente

mutilak:

-Usurbil FT

-Orioko FT

Futbol partidak**Kanpokoak:****Maiatzak 13, larunbata**

■ 12:30 Kadete mutilak,

Matigoxotegi (Donostia):

-Kostkas KE E

-Usurbil FT B

■ 16:30 Preferente

kadeteak Mutrikun:

-Mutriku Burumendi FG

-Usurbil FT

■ 17:30 Infantil mailako

partida Zarauzko Astin:

-Zarautz KE A

-Usurbil FT

Maiatzak 14, igandea

■ 17:30 Jubenilak

Errenteriako Fanderian:

-Touring KE B

-Usurbil FT A

■ 18:00 Preferente nes-

kak, Hermaniko Zubipen:

-Hernani CD B

-Usurbil FT

Intza Maiozek Espainiako eskubaloi txapelketako B sektorea jokatu du

Lauko txapelketa Orion jokatu zen aurreko asteburuan. Sinergia Orio eskubaloi taldeak etxean aritzeko ohorea izan zuen.

Jubenil mailako Espainiako Eskubaloi Txapelketako B sektorea jokatu zen aurreko asteburuan Orion.

Sinergia Orio eskubaloi taldea izan zen lehian aritu zen taldeetako bat. Eta Orioko eskubaloi taldeko jokalarien artean da Intza Maioz aginagarria.

Eneko Furundarenak Bidasoan jarraituko du

Bidasoa Irun eskubaloi taldea eta Eneko Furundarena Maiz jokalaria usurbildarra akordioa batera iritsi dira eta lan-kontratua 2027ra arte luzatu dutela iragarri dute.

Yugatx Agirre, lehia bizian

Yugatx Agirre Euskal Herriko 14. Bakarkako Sega Ligan ari da parte hartzen. Hiru saio izango ditu asteotan. Lehenengo, iragan larunbatean Etxalekun. Datozen biak: ■ Maiatzak 21 igandea, 12:00etan Hernanin. ■ Ekainak 3 larunbata, 17:00etan Altzon.

Heriotzak

Ramon Rezola Esnal

91 urterekin hil zen, apirilaren 22an.

**Goardiako farmaziak**

Osteguna 11 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Ostirala 12 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Larunbata 13 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Igandea 14 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Astlehena 15 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Asteartea 16 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Asteazkena 17 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Osteguna 18 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Ostirala 19 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Larunbata 20 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Igandea 21 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
GOMEZ BRAVO, MARINA
Kale Nagusia, 14 Hernani
943 55 48 92

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian eta aplikazioan dituzue ikusgai.

Agenda maiatza

12 ostirala

- **Errigorako produktuen banaketa.** 16:00-19:00 Udarregi ikastolan.
- **Etxeko garbikariak aztergai Santuenean** 17:30/19:30 Santuenea elkartean.
- **Erakusketa Sutegin: "Zumetaren muralak 50 urte"** 11:00-13:00 / 17:00-20:00.

13 larunbata

- **Errigorako produktuen banaketa.** 11:00-13:00 Udarregi ikastolan.
- **Zaintza grebari begirako bilera,** 11:00etan Potxoenean.
- **Erakusketa Sutegin: "Zumetaren muralak 50 urte"** 11:30-14:00 / 17:00-20:00.

14 igandea

- **San Ixido Eguna** Ikus egitaraua 9. orrialdean.
- **Emakumeen Itzulia** 18:40ak aldera iritsiko da eta N-634 errepidea zeharkatuko du.
- **Erakusketa Sutegin: "Zumetaren muralak 50 urte"** 11:30-14:00 / 17:00-20:00.

II. Txalaparta Festa hemen da

Maiatzak 12, ostirala

- Goizean, Udarregin Txalaparta kontzertu didaktikoa (DBH4ko ikasleekin).
- 19:00 Salbatore elizan, Txalaize kontzertua.

Maiatzak 13, larunbata

- 11:45-14:00 Herri erromeria Mikel Laboa Plazan: Adar deia, albokariak, txalaparta irekiak, txalaparta ikasleen emanaldiak, txorizo egosi eta sagardo banaketa.
- 14:30 Bazkaria Patri jatetxean. Txartelak salgai 25 euroan Lizardin edo 645 008 735 (azken eguna maiatzaren 10a).
- 18:00 Kontzertuak herriko hainbat txokotan, Olanonea plazatik hasita: Usurbilgo txalapartariak, Txotx txalaparta taldea, Zigoitiako Txalapartariak, Biotx.



Larunbat goizean, txalaparta doinuak nagusi izango dira Mikel Laboa plazan.

Maiatzak 14, igandea

- 19:00 Peru Galbeteren kontzertua eta segidan, bere 'Bide bazterean Hi eta Ni kantari' laburmetraia Sutegin.
- Sarrerak: 5 euro usurbilkultura.eus web atarian edo NOAUA!ren egoitzan.
- Antolatzailea: Jexux Artze K.E.

Ezkeltzu mendira joateko deia

Ezkeltzu Bizirik plataformak martxa antolatu du larunbat honetan. "Zizurkilgo Ezkeltzu mendian zentral eolikoa eraikitzeke ekimena aurkeztu du Green Capital enpresak. Inguru zoragarri hori ezagutzeke irteera antolatu du Andatza-Ezkeltzu Bizirik! elkarteak". Zutabe bana abiatuko da Usurbildik eta Zizurkildik. "Hegaztiei, landareei eta ondare arkeologikoari

buruzko azalpenak" eskainiko dituzte. ibilbidean zehar.

Maiatzak 13, larunbata

- 9:00 Usurbilgo plazan.
- 9:30 Zizurkilgo P.M. Otaño plazan.
- 10:00 Ezkeltzuko magalean (Zizurkil aldetik).
- Ondoren, hamaiketako.

Datozenak

Greba feminista orokorra antolatzeko bilera

Aurtengo Martxoaren 8an, zaintzarako eskubide kolektiboaren aldeko greba feminista orokor baterako prozesua abiarazi zuela berri eman zuen Euskal Herriko mugimendu feministak, "Denon Bizitzak Erdigunean" aldarriaren bueltan. "Prozesu partekatu bati ekin nahi diogu, herriz herri eta auzoz auzo antolatuz", iragarri zuten aipaturiko mugimendutik. Aliantzak eta proposamenak herri mugimendu eta eragile sozial zein sindikalekin bateratzeko nahia agertu zuten.

Testuinguru horretan, "udazkenean egingo den Zaintza Grebaren bueltan" bilkura antolatu du Kafe Tertulia, Usurbilgo neska* gazteen talde feministak. Oraingoan ere "adin ezberdinetako emakumeok* biltzea eta denon artean Greba Feminista Orokorrerako antolatzea izango dugu helburu".

Larunbat honetan elkartuko dira, goizeko 11:00etan Potxoenean. "Denon indarrak batzea beharrezkoa delako, animatu eta gerturatu! Gora borroka feminista!".

Baterajotzea

Aipatu greba feminista orokorraren aurretik, "Utopiak lehertzeraino, neska* gazteok baterajotzera!" deitu dituzte urriaren 13tik 15era Usurbilen.

ADA
-MASAJEAK-

633 36 22 33
erreka-txiki 1, USURBIL

·EGUNEKO MENUA
·KARTA
·RAZIOAK
·HANBURGESAK
·BOKATAK

ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA

www.artzabaljatetxea.com 943 36 91 39

Otar-Goxo
E l i k a g a i a k

Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

Edertu zaitez!

INDIBA®

AURPEGIA

- zimurrak eta adierazpen-lerroak
- hidratazioa eta argitasuna
- elastikotasuna
- begi-zuloak

GORPUTZA

- zelulitisa
- zelulak orekatu
- azala leundu eta irmotu
- metabolismoa aktibatu

snar

ESTETIKA

@enarestetika · enarestetika.com

943 571 680 | 620 852 875 · Muna Lurra 2, behea, Usurbil



Ane

ILEAPAINDEGIA

Artzabal



JUBILATUENTZAT AUKERA ONENA

Artzabal baserria 688 75 96 96

Transforma, esculpe, realirna
UDARAKO... Crema Premium Sculptor

**ZURE AZALA ETA
GORPUTZARAKO
TRATAMENDU
BERRIAK!**



INTZA

ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA ZENTROA

Eguerdian irekital Nagusia 8, Usurbil - Tel: 943 36 36 41



Elexpe

ileapaindegia

- Betileen tintaketa eta permanentea
- Estetika • Tatuaiak
- Zutikako eta etzandako solarium-a

Muna Lurra 12, Usurbil • 943 370 462



GOLDWELL
ELUMEN

mistoa

Zubiaurrenea 4, ☎ 943 361 951

Azkeneko produktu eta teknikak!

Estetika gidan parte hartzeko: 943 36 03 21 - publizitatea@noaua.eus

IMFPB USURBIL OLHUI

Oinarrizko Lanbide Heziketa



sukaldaritza
eta jatetxea



ile-apainketa
eta estetika



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA UNIBERTSITATE
ETA MERKETA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACION
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

AURREMATRIKULA

Epea Maiatzaren 8tik 26ra (biak barne).

Tokia Atallu. Zanpiura, 3

Telefonia 943 36 04 65

Posta lhi@usurbil.eus

aurrematrikulazioa webgunetik egiteko aukera!
olh.usurbil.eus

· 15-17 urte bitarteko gazteak
Eskura dezakete:

· DBH Graduatua

· Sarrera zuzena erdi-mailako zikloetara

· Lan - munduratzeari. Profesionaltasun ziurtagiria, 1



olh_usurbil